


Gehien mailegatutako euskarazko liburuak: urria-azaroa




[Arotzaren eskuak](#) / Alberto Ladron Arana N-4 LAD

Ia ezagutzen ez zuen aitonak herentzian mendian galdutako etxe bat utzi diola-eta, hara doa Ane Duhalde, ordura arteko bere bizimodu grisa eten nahian. Etxean, baina, deskubrimendu lazgarri bat egingo du, aitonaren iraganaz galdetzeraz behartuko duena.




[Sprako tranbia](#) / Unai Elorriaga N ELO

Harrigarria da gai nagusia ere, egilea gaztea izaki: agure baten eromen prozesua, izugarria izanda ere espanturik gabe kontatua; eta hunkigarria, dudarik gabe. Gaiaren gainetik, azpimarratzekoa da sentipenak transmititzeko egileak daukan modu berezia, sentimenduez aritzeko estilo fin eta dotore hori.




[Nola heldu naiz ni honaino](#) / Kattalin Miner N MIN

Enpresan mailaz eta soldataz igotzea, herentzia bat jasotzea, etxe bat erosi ahal izatea, lagun ugari edukitzea... Arrakastaren laukitxo guztiak beteak ditu Jezabelek, argi du zer nahi duen bizitzan eta zirt-zart hartu ohi ditu erabakiak. Halako batean, ordea, txikieria batekin paralizaturik geratuko da.



[Hamaseigarrenean, aidanez](#) / Anjel Lertxundi N LER

"Ez nuen leihorik ireki behar izan gertatuko zitzaidana ezagutzeko", horixe da eleberraren lehen perpausa. Martzelinaren bihozkada hori nagusitzen da hasiera-hasieratik; eta nobela zehazki ez dakigun gertakariaren inguruko informazioa antolatzen igaroko da.



[Piztiaren begiak](#) / Alberto Ladron Arana N-LAD

Kartzelan urteak pasatu eta gero, iraganeko zorrak garbitu nahi dituen gizasemea, batetik; negozio ilunak tarteko postutik baztertu zuten eta bere bizkarra zaindu behar duen polizia, bestetik. Ehiztari-sena dute biek, eta bata bestea harrapatu nahian dihardute, eginahal guztian.




[Nora ez dakizun hori](#) / Irati Jimenez N JIM

Batetik Martin agertzen da eleberrian, urtetan munduan barrena ibili ondoren Bilbora itzuli dena, argazki-erakusketa bat egiteko asmoz, eta hainbat hiritan egindako erretratuetan, emakume bera agertzen dela beti ikusten du, erdi ostenduta




[Eztia eta ozpina](#) / Patxi Zubizarreta N ZUB

Marokon, 1990eko hamarkadan gaude. Gazte magrebtar askoren antzera, Selimek Maroko hitza utzi, eta Paris distiratsura joatea desio du. Hantxe dago haren Meka. Bidaia horretan eztia eta ozpina edango ditu halabeharrez: eztia, Esther gasteiztarraren eskutik; ozpina, Mendebaldeko errealtate gordinetik




[Kristo irakia](#) / Hassam Blasim N BLA



[Jenisjoplin](#) / Uxue Alberdi N ALB

Baldintza makurrei aurre eginez zaildutakoa da Nagore Vargas, gaztaroa intentsitate handiz bizi izan dutenen grinarekin borrokatzen ohitua: autoritatearen kontra, benetakotasunaren bila, desafioek inarrosirik, barne bulkadaz, presaka maitatzen, bortizkeriari artez begira, arriskuari deika, edozertarako prest.



[Harrian mezua](#) / Alberto Ladron Arana N-4 LAD

Negu gorrian, mendi punta elurtuan, gailurreko zutarrak batean kateaz loturik, gizon bat agertuko da biluzik, putreek erdi jana, heriotza lazgarri baten zantzu guztiekin. Eta lehen deskubrimendu horren ondoren beste zenbait, aurrekoa bezain izugarriak.

